

**INFORMAZIO OHARRA: UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ADMINISTRAZIO PROZEDURETAKO EPEEN ETENARI BURUZKOAREN BETETZEKO MARTXOAREN 14KO 463/2020 ERREGE DEKRETUAN ETA MARTXOAREN 17KO 465/2020 ERREGE DEKRETUAN XEDATUTAKOA**

COVID-19 birusak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak (martxoaren 14ko BOE) honako hau xedatzen du lehen hiru ataletan:

- 1. Se suspenden términos y se interrumpen los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público. El cómputo de los plazos se reanudará en el momento en que pierda vigencia el presente real decreto o, en su caso, las prórrogas del mismo.*
- 2. La suspensión de términos y la interrupción de plazos se aplicará a todo el sector público definido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*
- 3. No obstante lo anterior, el órgano competente podrá acordar, mediante resolución motivada, las medidas de ordenación e instrucción estrictamente necesarias para evitar perjuicios graves en los derechos e intereses del interesado en el procedimiento y siempre que éste manifieste su conformidad, o cuando el interesado manifieste su conformidad con que no se suspenda el plazo.*

Errektorearen 2020ko martxoaren 14ko Erabakiaren bidez, bederatzigarren atala, ezarri egin da UPV/EHUn gorago aipatu den errege dekretuan xedatutakoa, martxoaren 16tik aurrerako eraginez.

Ministroen Kontseiluak honako hau jakinarazi zuen 2020ko martxoaren 15eko prentsa oharrean:

*Con el fin de concentrar los recursos del Sector Público en las actividades esenciales para el funcionamiento del Estado, al tiempo que se preserva la integridad y salud de los empleados públicos, se suspenden los términos y se interrumpen los plazos de los procedimientos administrativos en curso, regulados de forma directa o indirectamente por la Ley 39/2015 del*

**Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas,  
hasta que cese el estado de alarma.**

*Esta medida, adoptada ayer por el Consejo de Ministros, permite igualmente que los interesados puedan adaptar sus expectativas de términos y plazos a la duración del estado de alarma, sin que la declaración del mismo pueda perjudicar las relaciones ordinarias de los ciudadanos con las administraciones públicas. Esta previsión queda excepcionada únicamente para aquellos supuestos en los que el interesado manifieste su conformidad con la no suspensión o en los supuestos estrechamente vinculados con los hechos justificativos del estado de alarma.*

*El Gobierno considera que el funcionamiento del sector público debe adaptarse a las circunstancias presentes y conciliar la protección de la salud de los empleados públicos con el correcto funcionamiento de los servicios públicos, especialmente aquellos que son esenciales para la colectividad.*

Beraz, 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako administrazio epeen etena aplikatu behar zaie Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen mende dauden administrazio prozedura guztiei, bai eta Euskal Herriko Unibertsitateak izapidezen dituen beste prozedura guztiei ere, xedea eta araubidea edozein izanik ere.

Aipatutako etenaren ondorioz, alarma egoera indarrean egongo den bitartean ez da kontatuko prozedurak ebazteko eta jakinarazteko epea, eta ez da beharrezkoa izango jakinaraztea edo argitaratzea betekizunak, epeak edo izapideak eteteko iragarkiak. Izan ere, etena arau orokorra da eta ondorio automatikoak ditu.

463/2020 Errege Dekretuak ezarritako epeen eta betekizunen etena gorabehera, ebazteko eskumena duen organoak dagokion prozedurarekin jarraitzea erabaki ahal izango du, interesatuaren eskubideetan kalte larriak saihesteko beharrezkoak diren instrukzio eta antolamendu neurriak hartzeko, baldin eta interesatuak aldez aurretik jakinarazten badu ados dagoela. Prozedurak aurrera egin dezan, organo eskudunak erabaki arrazoitua eman beharko du. Adierazitako helburua betetzeko, eta aipatutako baldintzetan, ebazteko eskumena duen organoak kasuan kasuko prozedurei ekin ahal izango die.

Etena aplikatuko da 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma egoerak irauten duen bitartean (2020ko martxoaren 14an ezarri zen egoera, BOEn argitaratu zen egunean), edo dekretuaren luzapenerik irauten duten bitartean, halakorik egonez gero.

Etendako epeen zenbaketa hasiko da berriro errege dekretuak edo luzapenek indarraldia galtzen duten unean.

Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak (martxoaren 18ko BOE) aldatu egin du martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19 birusak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera ezartzen duena. Aldaketen xedea da, hitzaurrearen arabera, indartzea osasun publikoaren babes eta ziurtatzea funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamendua.

Zehatz esanda, hirugarren xedapen gehigarriak ondokoa dio laugarren atalean:

4. Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, desde la entrada en vigor del presente real decreto, las entidades del sector público podrán acordar motivadamente la continuación de aquellos procedimientos administrativos que vengan referidos a situaciones estrechamente vinculadas a los hechos justificativos del estado de alarma, o que sean indispensables para la protección del interés general o para el funcionamiento básico de los servicios.

Errege Dekretu berri honek, beraz, prozedura hauekin jarraitzea ahalbidetzen du: a) zerbitzuen oinarrizko funtzionamendurako ezinbestekoak diren prozedurak; edo, b) interes orokorra babesteko ezinbestekoak direnak Horretarako, prozedura ebatzeko eskumena duen organoak erabakia eman beharko du, eta erabaki horretan, aipatutako errege dekretuaren arabera, arrazoia jaso beharko dira, azaltzeko zergatik eramango den aurrera dena delako prozedura. Era berean, aipatutako baldintzak betetzen direnean, bai eta eskakizun berberak ere, unibertsitateak prozedura berriei ekin ahal izango die.

Ezinbesteko prozeduratzat hartuko dira, nolanahi ere, errektorearen 2020ko martxoaren 16ko Erabakian eta horri lotuta eman ahal izango diren bestelakoetan funtsezkotzat jotako zerbitzuei dagozkienak (aipatutako erabakiak funtsezko zerbitzuak zehazten ditu, COVID-19 birusaren agerraldia dela-eta UPV/EHUn aurrez aurreko jarduera guztiak etenda dauden aldirako), eragotzi gabe horregatik beste prozedura batzuk ere ezinbestekotzat jotzea, errege dekretu berrian adierazitakoaren arabera.

Unibertsitatean abian diren prozeduren betekizunak, epeak edo izapideak eteteko iragarkiak argitaratzea beharrezkoa ez bada ere, egoki ikusi dugu argitara ematea informazio ohar hau.